

1.	SARRERA.....	2
2.	DATU OROKORRAK.....	3
	2.1. BIZTANLERIA.....	3
	2.2. EKONOMIA.....	4
3.	PROZESUAREN DESKRIAPENA.....	5
	3.1. PROZESUAREN HELBURUAK.....	5
	3.2. PROZESUAREN ESKEMA ETA KRONOGRAMA.....	6
	3.3. METODOLOGIA.....	14
4.	DIAGNOSTIKOA.....	15
	4.1. DATU KUANTITATIBOAK.....	15
	4.2. DATUAK KUALITATIBOAK.....	25
5.	DISEINUA.....	28
	5.1. PLAN ESTRATEGIKOA (2013-2016).....	28
	5.2. KUDEAKETA PLANA (2013).....	86
6.	ERANSKINAK.....	166
	6.1. PROZESUAN PARTE HARTU DUTENEN ZERRENDA.....	166
	6.2. "ETORKIZUNERA BEGIRA" FITXA.....	169

---

## 1. SARRERA

---

Zaldibarko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen jardun du azken urteetan. Horrela, hainbat plan estrategiko landu dira, eta azkena 2012an amaituko denez, Euskara Sailak Plan Estrategiko berria landu nahi izan du, 2013-2016 epealdirako.

Plangintza berria diseinatzeko unea egokia izan ohi da geldialdi bat egiteko eta eguneroko dinamikatik harantzago begiratzeko; orain arte egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, emandako aurrerapausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, **egungo egoeraren diagnostikoa** egiteko. Geldialdi horrek egiten ari garenaren zentzuan kokatzen laguntzen digu, etorkizunera begira jarraitu beharreko norabidea marrazteko oinarriak edo irakasbideak eskaintzen dizkigu, eta horiek egikaritzeko indar eta energia pertsonal nahiz kolektiboa berpizten laguntzen du.

Halaber, abagune hori aproposa izan ohi da jauzi kualitatiboak emateko. Esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeak, edota euskararen garapenaren aldeko lanean diharduten udalerriko elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzeak. Azken batean, hizkuntza-komunitatea egituratu eta sendotzeko.

Zaldibarko Udalak ere plangintza batetik besterako epealdi hau baliatu nahi izan du hizkuntzaren inguruan **gizarte-gogoeta eragiteko**. EBPN berria diseinatzeko, etorkizuneko marko berria ezartzeko, herriko eragileak eta herritarrak kontuan hartu nahi izan ditu: **hurrengo lau urteetarako plangintza** diseinatzerakoan, eurekin batera landu eta iritziak eta ekarpenak aintzat hartu.

Era berean, aurrera begirakoak landu aurretik, egungo egoeraren alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak jaso dira.

Eginkizun horretan Zaldibarko Udalak Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izan du, eta honako txosten honetan jasotzen da diagnostikoa eta diseinua egiteko lanaren ondorioak eta emaitzak.

## 2. DATU OROKORRAK

### 2.1. BIZTANLERIA

Zaldibarko Elizatea Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugan dago, Durangotik 7 kilometrora eta Eibartik 9ra. Iparraldean Mallabia eta Ermua, Hegoaldean Zaldibar, Sortaldean Eibar eta Elgeta, eta Sartaldean Berriz. Ondo komunikatuta dago: N-634 errepidea bertatik igarotzen denez, Eibar, Ermua eta Durangora joateko autobus ugari dago. Gainera, Bilbo Donostiarekin lotzen duen trena ere bertatik pasatzen da.

Zaldibar zirkoaren forma hartzen duten mendiz inguratuta dago, pasabide estua uzten dute herriaren sartaldeko sarreran eta bertatik pasatzen dira 634 errepidea, Bilbo-Behobia autopista eta trena. Gipuzkoarako irteera Areitiko mendatetik egiten da, baina trenak eta autopistak lurpetik zeharkatzen dute mendate hori. Inguru aldapatsua izan arren, mendi tontorrik altuena Santamañezar (Ganguren, 675m) deritzona da eta hegosartaldean dago.

1897	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2006
700	651	747	824	1.265	969	1.307	1.967	2.708	3.220	3.152	2.877	2.876

Gaur egun, bizilagun gehienak Ibaizabal ibarraren beheengo aldeetan, industria inguruan, bizi da, eta gainontzekoak, berriz, baserri inguruan sakabanatuta. Zaldibarren bertan, hau da, herribarruan, biztanleen %90 bizi da.

## 2.2. EKONOMIA

Metalaren arloko industria da nagusi gaur egun eta lantegi askok atzerrian saltzen du bere produktua. Honako hauek dira aipagarrienak: burdinolak, metalezko irarpenak, makina-erremintak, ehiza-eskopetak, giltzak, umeentzako kotxeak, autoentzako industria laguntzailea eta aroztegiak.

Merkataritzan eguneroko bizitzako premiei aurre egiteko zerbitzuak eskaintzen dituzte bertako dendariak: janaria, opariak, loreak, altzariak, aseguruak, loteria eta abar. Banketxea, postetxea, botika ere badaude.

Arbolazaintzak ere garrantzi handia dauka. Bada mende bat baino gehiago arlo hori jorratzen hasi zela eta ospe handia hartu du. Hainbat baserritarrek landareak eta zuhaitzak hazten dihardute. Basoen %90 egurra egiteko aproposa da, berezko aberastasunaren seinale.

Baratzezaintzan diharduen beste zenbait baserri ere ezin aipatu barik utzi. Ortuan hartzen dituzten produktuak herrian ez ezik, Eibar, Durango eta Bilboko merkatuetan ere saltzen dituzte. Larreak, berriz, ez dira hain ugariak, abere gutxi daudelako.

---

## 3. PROZESUAREN DESKRIBAPENA

---

### 3.1. PROZESUAREN HELBURUAK

**Helburu orokorra:**


- ⇒ Zaldibarko gizarte-eragileekin batera, gaur egungo euskararen egoeraren argazkia egitea eta 2013-2016 bitarteko EBPN diseinatzea.

**Zehatzak:**

- Gizarte eragileak euskararen egoeraz jabetzea.
- Etorkizunera begira, Zaldibarren euskararen erabilerak gora egiteko aukerak eta bideak identifikatzea; eta horren arabera plan estrategikoaren ildo nagusiak adostasunez finkatzea.
- Herritarren eta udal agintarien artean elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzeko kultura sustatzea, euskararen plan estrategikoa egiterakoan herritarrak subjektu aktibo bihurtuz.

## 3.2. PROZESUAREN ESKEMA ETA KRONOGRAMA

Aipatutako helburuak lortzeko, hona hemen modu grafikoan jarraitu den lan-prozedura:





4. PLAN  
ESTRATEGIKOA  
DISEINATZEA

- **Lan-mahaien 2. batzarra:** helburu estrategikoak zehaztea eta ekintzak proposatzea

5. PROZESUA IXTEA

- Prozesuaren **txostena lantzea** eta **aurkeztea**

## Aurrelanak

Egitasmoa bera martxan jarri aurretik egindako lanak jaso ditugu.

- *Prozesua eta lan-egutegia adostu.* Batzorde teknikoaren lehenbiziko lana kronograma edo lan-egutegia adostea izan zen, egitasmoaren urrats bakoitza noiz egin zehazteko.
- *Komunikazio-plana diseinatu eta komunikazio-ekintzak garatu.* Komunikazioa, gisa honetako prozesuetan, giltzarri izan ohi da, Administrazioa, herriko eragile eta herritarren arteko lankidetzeta eta parte-hartzearen kultura oso hedatua ez dagoen gure gizartean ez baita erraza jendea honelako egitasmoetara erakartzea.

Hori dela eta, Batzorde Teknikoak komunikazio-plana diseinatu eta garatu du, prozesuak dirauen bitartean komunikazioa egokia bermatzeko. Komunikazioa prozesu guztian zehar landu beharreko gaia izan da, baina batez ere hasiera eta bukaera une klabeak izan ohi dira: hasieran, Zaldibarko udalerriko eragileei egitasmoaren berri eman eta parte hartzeko dituzten aukerak jakinarazteko eta bukaeran, egitasmoaren emaitzak jendarteratzeko.



Komunikazio-plana Batzorde Teknikoan landu zen eta hona hemen egindako komunikazio-ekimenak:

Egindako komunikazio-lana	
Prozesua abiatzeko komunikazioa:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prentsaurrekoa</li> <li>• Udal webgunea</li> <li>• Herriko eragileekin harremanetan: posta elektronikoz eta telefono-deien bidez</li> <li>• Kartelak guneko estrategikoetan</li> </ul>
Egitasmoaren garapenean egin beharreko komunikazioa:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko eragileekin harremanetan: posta elektronikoz eta sms bidez</li> </ul>
Egindako lanaren inguruko komunikazioa:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte-hartzaileei egindako lanaren txostena bidali.</li> <li>• EBPN diseinatzerako orduan, parte-hartzaileei eurek egindako proposamenekin hartutako erabakiak jakinarazi (aurkezpena, gutuna...).</li> <li>• Komunikabideetara prentsa-oharrak bidali.</li> <li>• Aurkezpena.</li> </ul>



**Zaldibarren bagara?**

Zelan gura duzu egitea berba Zaldibarren datozen lau urteetan?  
Horixe jakin eta aztertu gura dugu eta zeure iritzia jaso. Seguru esateko asko daukazula!

Zer eskatuko dizu honek guztiak?  
Egun bitan ordu bi, hori baino ez.

Zer egingo dugu?  
Taldeen aztertu Zaldibarren zer egin litekeen datozen lau urteetan euskara erabili eta entzun dadin.

**Lan-saioak**  
1. saioa      IRAILAK 20  
2. saioa      URRIAK 4

Ordua: 18:30-20:30  
Lekua: Zaldibarko liburutegi zaharra

Parte hartu gura baduzu, izena eman:  
Euskara zerbitzua: 94 682 70 16 edo eguen@zaldibar.org  
\*Gure horman:  
<http://www.facebook.com/zaldibar.liburutegiabiblioteca>

- *Lan-mahaiak osatu eta antolatu.* Zaldibarko Udalak herriko eragile eta norbanakoak bertaratzeko ahalegin berezia egin du euren proposamenak aintzat hartu ahal izateko plana diseinatzeko.

#### **Datuak batzea**

- *Egitasmoarekin lotutako dokumentazioa bildu eta aztertu.* Zaldibarko Udalak badaramatza urteak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia lantzen. Hortaz, fase honetan interesgarria izango da orain arte egindako ekintzen zerrrenda osatzea eta aztertzea, helburu eta esparru estrategikoka sailkatuta. Halaber, bestelako datu soziolinguistikoak ere bildu eta aztertuko ditugu. Informazio hori baliagarria izango zaigu herritarrekin

aurreko epealdiko plangintzaren balorazioa egiteko eta udalerrian egun euskarak bizi duen egoeraren diagnostikoa egiteko. Horretarako beharrezko dokumentazioa Elhuyar Aholkularitzaren esku jarriko du Zaldibarko Udalak.

- *EBPNk jasotzen dituen arloen diagnostikoa egitea.* 2003an egin zen azken diagnostiko osatua. Hortaz, 2012an diagnostiko hori eguneratzea proposatzen dugu: galdera orokorrak (euskara zerbitzua, biztanleria...); esparrukako datuak (familia, irakaskuntza...). Datu horiek lortzeko hainbat bide erabiliko ditugu: udaleko datuak, Eustat ...

### **Balorazioa eta diagnostikoa egitea**

Lan-mahaietako eta Aholku Batzordeko batzarretan euskararen egoera orokorra eta arloz arloko egoera aztertzeaz gain, herritarren bizipen pertsonalak eta euskararekiko jarrera eta portaerak lantzeari ere eskaini diogu tarte. Izan ere, hizkuntzaren biziberritzea lortzeko gako nagusia hiztunengan dago eta nekez lortuko dugu euskararen erabilera areagotzea pertsonengan eragin gabe. Prozesu honetan zehar Zaldibarko herritarren subjektibitatea lantzeko, bakoitzak hizkuntzarekiko dituen lotura afektiboak, iritziak, pentsamoldeak... mahai gainean jarri ditugu. Kontzientziak astindu nahi izan ditugu, portaera aldaketarako lehen urratsa egoeraren kontzientzia hartzea baita.

Saioak tekniko eta metodologikoki Elhuyar Aholkularitzak prestatu ditu eta dinamizatze lanak ere bere esku izan dira. Saioak tailer modura antolatu ditugu, lanerako erabili ditugu eta guztion parte hartzea sustatzeko teknika bereziak erabili ditugu. Erabili dugun metodologiak lanerako giro egokia sortzen lagundu du eta herritarrak elkar ezagutzea eta euren arteko harremanak sendotzean eragitea ere helburu izan dugu zeharka.

- *Lan-mahaien lehen batzarra.* Bi lan-mahai izan ditugu, eta batzar bakoitzean, herriko eragileez gain, Elhuyar Aholkularitzako teknikariak parte hartu du saioak dinamizatzen. Lehen batzar honetan, hauek landu ditugu:
  - Bizipen pertsonalak.
  - Dagokion arloaren balorazioa egitea: aurreko urteetan egindako lana aztertu, ondo egindakoak eta hobetu beharrekoak identifikatu.
  - Arloz arlokako diagnostikoa osatzea.

### **Plan estrategikoa diseinatzea**

- *Lan-mahaien bigarren batzarra.* Ildo estrategiko nagusiak aintzat hartuta, esparrukako helburu zehatzak eta ekintzak landu ditugu.

### **Prozesua ixtea**

- *Prozesuaren balorazioa.* Batzorde Teknikoarekin batera landu da.
- *Txostena lantzea.* Lan-mahaietako eta Aholku Batzordeko partaideek egindako ekarpenetatik abiatuta datozen lau urteetarako plan estrategikoa jaso dugu txostenean, euskaraz; eta IRATI aplikaziora egokituta ere aurkeztuko dugu.
- *Txostena aurkeztea.* Egindako txostena prozesuan parte hartu dutenei aurkeztuko diegu.

**Kronograma**

LANAK	2012															
	I. hilabetea				II. hilabetea				III. hilabetea				IV. hilabetea			
Prozesua antolatu	■	■														
Batzorde Eragilearen batzarrak		■														■
Komunikazio-plana landu eta adostu	■	■														
Komunikazio-plana garatu	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
Lan-mahaien batzarrak					■	■			■	■						
Aholku Batzordearen batzarrak								■				■				
Txostena idatzi eta aurkeztu (euskaraz)															■	■
Prozesuaren balorazioa egin														■		

### 3.3. METODOLOGIA

Elhuyar Aholkularitzak Reflect Ekintza ikuspegi metodologikoan oinarritzen du bere lana. Reflect Ekintza ikuspegi dinamikoa da eta era guztietako lanak egiteko aplikatu ohi da; adibidez: hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuetan, ikuskaritza soziala egiteko, aurrekontuak aztertzeke, giza eskubideak lantzeko, emakumeen eskubideak lantzeko, etxeko biolentziaren aurka, udal planifikazioa egiteko, azterketa politikoa, osasuna eta abar.

Metodologia honen abiapuntua pertsonak dira, ekintza eragiten, bideratzen edota egiten duten pertsonak, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, gure errealitatea, bai gertukoa, baita estrukturala ere, “irakurri” egiten dugu. Poliki-poliki, prozesua subjektibitatean oinarriturik eraikiz joaten gara eta subjektibitatearen sozializazioak taldearen posizionamendua dakar berekin.

Hauek dira Reflect Ekintza metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- Parte-hartzea eragiten du: Pertsonak zerbait bizi dutenean, beraiena egiten dute (“jabetzen dira”) eta horrela inplikatu egiten dira.
- Bibentziala da: Norberaren bizipenetan oinarrituta aztertzen da egoera.
- Talde-izaera sendotzen du: Horrela, taldea bera prozesuaren eragile izatea lortzen da. Pertsona bakoitzak bere espektatibak ditu eta garrantzitsua da taldearen dinamikan kontuan hartzea.
- Kalitatezko parte-hartzea lortzeko lan-eskema mailakatua da: Banakako lanetik hasita, talde txikitan eztabaidatu eta adosten da, eta, bukatzeko, denen artean berriz ere eztabaidatu eta adosten da.
- Bisuala da. Egoerak bisualki planteatzen dira errazago aztertu ahal izateko.
- Aldaketa eragiten du. Ekintzarekiko identifikazioak aurrera egitea dakar; taldeak berak proposatutakoa bultzatzen baita.

Laburbilduz, hau lortzen dugu: Taldeko pertsonen esperientzietan oinarrituta eta parte-hartzea eragiten duten zenbait teknika erabiliz, hausnarketarako bideak jarri eta aldaketarako ekintzak lantzeko oinarriak finkatzen dira.

## 4. DIAGNOSTIKOA

Ondorengo orrietan Zaldibarko euskararen egoeraren berri jasoko dugu datuetan. Lehendabizi, datu kuantitatiboak aurkeztuko ditugu, datu orokorrak eta esparruka. Eta ondoren, datu kualitatiboak, batez ere, herritarrekin egindako lan-saioretatik jasotakoak.

### 4.1. DATU KUANTITATIBOAK

#### Euskara zerbitzua

Euskara zerbitzuaren baliabideak:	Pertsona kop.	1,00
	Ordu kop.	7,00

#### Biztanleria

Udalerriko biztanleria		3.010,00
Biztanleria adin taldeka:	Biztanleria <19	513

Biztanleria 20-65	1959
Biztanleria > 65	538
Biztanleriaren dentsitatea (Bizt./Km2)	248,00
Biztanleria jaioterriaren arabera:	
Biztanleria egoiliarra. EAEn jaiok (%)	87,00
Beste probintzietan jaiok (%)	6,23
Atzerrian jaiok (%)	6,80

## Enplegua

Establezimenduak eta enplegua jarduera adarraren arabera:	
Industria eta energia (kop)	87,00
Eraikuntza ( kop.)	29,00
Merkataritza, ostalaritza, garraioak	74,00
Bankuak, aseguruak eta enpresa zerbitzuak (kop.)	27,00
Bestelako zerbitzu jarduerak (kop.)	11,00



## Familia

Euskararenerabilera handitu etxeko esparruan transmisioa ziurtatu eta familia kideenarteko hizkuntza izan dadin

Etxean erabiltzen den hizkuntza	Euskara (%)	26,57
	Euskara eta gaztelania (%)	11,13
	Gaztelania (%)	61,64
	Beste bat (%)	0,65
Lehen hizkuntza (>5urte) adinaren arabera	Guztira(kop.)	2.766,00
	Euskara (kop.)	1.037,00
	Euskara eta gaztelania (kop.)	109,00
	Gaztelania (kop.)	1.578,00
	Beste bat (kop.)	42,00

Hizkuntzaren bilakaera (>5urte) adinaren arabera	Guztira(kop.)	2.766,00
	Euskaldun zaharrak (kop.)	995,00
	Jatorrizko elebidunak (kop.)	96,00
	Euskaldun berriak (kop)	289,00
	Partzialki euskaldun berriak (kop)	330,00
	Partzialki erdaldunduak (kop.)	45,00
	Gutziz erdaldunduak (kop.)	10,00
	Erdaldun zaharrak (kop.)	1.001,00

## Euskalduntzea-Prestakuntza

Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean

Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira (€)	3.586,01
Berbalagun, parte hartzaile kopurua	18,00
Aisa, ikasle kopurua	20,00



Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna:		
	Elebidunak (%)	49,90
	Elebidun hartzaileak (%)	13,55
	Erdaldun elebakarrak (%)	36,55
Euskal hiztunen alfabetatze maila		
	Alfabetatuak (%)	76,48
	Erdizka alfabetatuak (%)	20,95
	Alfabetatu gabeak (%)	2,56
Orokorrean,kaleko euskararen erabilera (%)		21,7

#### Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu

Udaletik kanpoko egiturek euskaraz ematen dituzten ikastaroak (%)	25,00
Udalak antolatzen dituen euskarazko ikastaroak (%)	50,00
Ikasle kopurua euskaraz emandako ikastaroetan (%)	25,00

## Irakaskuntza

### Euskarazko ikastereduak sustatu

0-3bitarteko matrikulazioa euskaraz (%)	100,00
Haureta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D ereduan (%)	100,00
Etorriberrien matrikulazioa D ereduetan (%)	100,00

## Administrazioa

Esparru honi dagokion datu biketa Erabilera Planaren txostenean dago jasota.

## Lan mundua

### Lan munduan euskararen erabilera handitu

Udalerriko enpresak, guztira	124,00
Erabilera-plana duten enpresak (%)	0,00
Euskararenerabilerari lotuta Bikain ziurtagiria duten enpresak (%)	0,00

### Merkataritza eta ostalaritza erabilera handitu

Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira	72,00
Euskararenerabilerari lotutako Bikain zigilua duten establezimenduak (%)	0,00

### Aisia

#### Aisialdi eskaintza erabilera handitu

Euskaraz,edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%)	100,00
Udalakeuskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)	100,00

### Kirola

#### Kirol eskaintza erabilera handitu

Euskaraz,edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%)	25,00
Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia (%)	75,00
Euskararenpresentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian (%)	95,00

## Kulturgintza

### Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu

Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak	10,00
-----------------------------------------------------	-------

### Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu

Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak (#)	0,00
Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua	0,00
Lagundutako pertsona/talde kopurua	0,00

### Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu

Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak (%)	52
Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak (%)	40

Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu

Sortueta hedatutako produktu kopurua euskarria edozein delarik ere (liburu, jolas, ...)	3,00
Informaziohonen hedapenera zuzendutako ekimen kopurua	3,00

Erljio saioetan euskararen erabilera handitu

Sinesmen-mota guztietako erljio saioak aintzat hartuta, euskararen erabilera (%)	50,00
----------------------------------------------------------------------------------	-------

**Komunikabideak**

Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan

Euskara hutsezko komunikabideak (%)	1,00
Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan (%)	25,00

Publizitatean euskararen presentzia bultzatu

Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea (%)	50,00
-----------------------------------------------------------------------------	-------

## Teknologiaberriak

### Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu

Udalek web orrira euskaraz egiten diren sarrerak (%)	100,00
Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak	10,00
Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua (#)	6.000,00
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak (%)	28,45
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialaren erabilera %)	32,69



## 4.2. DATU KUALITATIBOAK

FAMILIA TRANSMISIOA, EUSKALDUNTZEA ETA ETORKINAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>EUSKARAREN TRANSMISIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Guraso berriak, euskaldunak eta alfabetatuak dira</li> <li>-Guraso Elkartean euskararekiko jarrera ona dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Taldean pertsona bakarra egoteak erdalduna guztiak erdarara pasatzea eragiten du.</li> <li>-Euskaldun ez alfabetatuen ziurtasun falta. Askotan aldameneko pertsonaren jarrerak eragiten du hori.</li> <li>-Euskararen jatorriari ez zaio garrantziarik ematen, ez da ezagutzen.</li> <li>-Guraso Elkartean pertsona bakarra da euskalduna</li> <li>-Anbulategiko mediku guztiak erdaldunak dira</li> </ul>
<b>ERABILERA FAMILIAN</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>-Bikote mixtoetan erdara gailentzen da.</li> </ul>
<b>EUSKALDUNTZEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-D eredua bakarrik eskaintzen da HH eta LH</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Euskara eskoletan parte hartzeko maila desberdin askotako jendea biltzen da eta horrek taldeak osatzea zailtzen du. Ondorioz, aukera bakarra, inguruko herrietako euskaltegiara joatea izaten da.</li> </ul>
<b>ETORKINAK ETA EUSKARA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Haur etorkinak berehala euskalduntzen dira eskolan</li> <li>-Ez euskararekiko, eta ezta gaztelaniarekiko atxikimendurik ez erakustea guretzat aukera izan daiteke goxotasunez erakartzen baditugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Jatorrizko hizkuntza gaztelania dutenean ez dute euskara ikasteko beharrik sumatzen.</li> <li>-Emakume marokoarrak etxetik gutxi irteten dira eta beraz, ez dute ez euskararekiko eta ezta gaztelaniarekiko atxikimendurik erakusten.</li> </ul>

KULTURA, KIROLA, AISIALDIA eta TEKNOLOGIA BERRIAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>KULTURA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Talde asko (Ilargi, Korala, liburutegia, gaztetxea, dantza, trikitxa,...)</li> <li>-Durangaldeko ikuspegiarekin, durangalde mailan lan egiten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Kultur etxea ez egotea.</li> <li>-Euskara elkarterik ez dago.</li> </ul>
<b>KIROLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hitzarmena badago.</li> <li>-Entrenatzaileen %75ak euskaraz daki.</li> <li>-Entrenatzaileentzako euskarazko futbol ikastaroa</li> <li>-Talde asko daude.</li> <li>-Pelota txapelketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hitzarmenari ez zaio jarraipenik egiten.</li> <li>-%25eko erabilera</li> <li>- Futboleak bakarrik eragin izana</li> <li>-Pilotalekuko dinamizatzailea erdalduna da</li> </ul>
<b>TEKNOLOGIA BERRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hizkuntza transmisiorako baliabide ona da.</li> <li>-Zaldiblog</li> <li>- Liburutegian euskarazko materiala jende dexentek hartzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Foro gehienak erdaraz dira eta euskarazko aukera gutxi</li> </ul>
<b>AISIALDIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Zapatublai eta Gaztelekua ekimen arrakastasuak dira.</li> <li>-Jubilatuak etxea gune euskalduna da.</li> <li>-Zaldibartarrek aisialdia herrian pasatzeko ohitura dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-DBH egitera kanpora joan beharra.</li> <li>-Gazteak ez dira herrian geratzen.</li> </ul>

LAN MUNDUA, MERKATARITZA ETA KOMUNIKABIDEAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>ENPRESA HANDIAK</b>	-Kopuruz, enpresa asko daude herrian.	-Hizkuntza ez dute balioztat hartzen, ez diote garrantziarik ematen. -Langileen artean erdarararako joera handia euskaldunak izan arren. -Kanporako produktuak saltzen dira.
<b>ZERBITZU ENPRESA TXIKIAK</b>	-Aseguru Etxea euskalduna	-Oro har, oso erdaldunak (ileapaindegiak, karrozeria, praktikantea,...) -Toki hauetan aurkitzen ditugun aldizkari guztiak erderazkoak
<b>MERKATARITZA</b>	-Langileria gehiena euskal jakituna da. -Errotulazioa, oro har, elebiduna	-Saltzaileak azalpenak gaztelaniaz.
<b>KOMUNIKABIDEAK</b>	- Anboto eta Zalduberri, tokiko komunikabide euskaldunak.	-Anbotok etxe askotan ez dauka harrera ona
<b>OSTALARITZA</b>	-Establezimenduen izenak euskaldunak dira hein handi batean.	-Giro erdelduna sumatzen da. -Musika euskalduna oso gutxi entzuten da. -Berria egunkaria taberna bakar batean dago (Herriko)

---

## 5. DISEINUA

---

### 5.1. PLAN ESTRATEGIKOA (2013-2016)

Zaldibarko Udalaren Plan Estrategikoak hamar esparru hauek bereizten ditu:

1. Familia transmisioa
2. Euskalduntzea-prestakuntza
3. Irakaskuntza
4. Administrazioa (Erabilera Planean jasotzen da)
5. Lan mundua
6. Aisia
7. Kirola
8. Kulturgintza
9. Komunikabideak
10. Teknologia berriak

Kudeaketa Planean, esparru bakoitzean datorren urtean bideratuko diren helburuak azaltzen dira, helburuak lortzeko behar beharrezkoak diren estrategiekin batera (sentsibilizazioa, komunikazioa, laguntza ekonomikoa eta teknikoa...). Azkenik, ekintzak ageri dira Kudeaketa Planean.

Ibilbide honi azken geltokia falta zaio: ebaluazioa, hots, urtean zehar egindakoa aztertzea eta objektiboki neurtzea. Azken urrats hau urte bakoitzean egingo den behin betiko Kudeaketa Planean jasoko da, eta abiapuntu bilakatuko da hurrengo urteko Kudeaketa Plana diseinatzeko.

Beste barik, datozen orrietan Zaldibarko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa eta 2013ko Kudeaketa Plana aurkezteko ditugu.

<b>EBPNren helburu orokorra</b>
Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da.
<b>Zaldibarko Euskararen Plan Estrategikoaren helburua, 2013-2016 epealdirako</b>
Zaldibarren euskararen erabilera areagotzea esparru guztietan eta herritarrek euskararen sustapenean subjektu aktibo bihurtzea

Helburu estrategikoak (ESEP)	Esparruak <sup>1</sup>	Zehar-lerroak Motibazioa eta zabalkundea		
		Barruko proiektioa Euskararen prestigioa eta erabilera	Sentsibilizazioa eta motibazioa Euskaldunen lidergoa	Barruko proiektioa Euskaltzaleen antolaketa sustatzea eta sarea eratzeara
<i>Euskararen jabeakuntza</i>	1. Familia transmisioa			
	2. Euskalduntzea-prestakuntza			
	3. Irakaskuntza			
<i>Euskararen erabilera</i>	5. Lan mundua			
	6. Aisia			
	7. Kirola			
<i>Euskararen elikadura</i>	8. Kulturgintza			
	9. Komunikabideak			
	10. Teknologia berriak			

<sup>1</sup> 4. esparrua ADMINISTRAZIOA da. Esparru horren lanketa berezia ERABILERA PLANAREN bitartez egiten da.

## 1. Familia transmisioa

### Ahulgunea

- Taldean pertsona erdaldun bakarra egotea nahikoa da guztiak erdarara pasatzeko.
- Hurrei euskaraz egiten zaien arren, guraso-taldeetan gaztelera izaten da nagusi.
- Euskaldun ez alfabetatuen ziurtasun falta. Askotan aldameneko pertsonaren jarrerak eragiten du hori.
- Guraso Elkartean pertsona bakarra da euskalduna.
- Haurren artean geroz eta gaztelania gehiago entzuten da.

### Helburua

- **Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.**

Ekintza	Estrategia
<p>1.1.1.2. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• “Esaidazu euskaraz” transmisio kanpaina: haur jaioberrien gurasoei oparia eta gurasoentzako aholku-sorta.</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Haur jaioberrien gurasoak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>1.1.1.3. Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezten.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoei zuzendutako kanpaina: mezu argiak eta errealitatea erakutsi (publizitate kanpaina “Zuen artean ere eukaraz!” modukoak, hitzaldiak, ikastetxeen bidez lanketa, ...)</li> <li>• Ikastetxeekin lanketa: ikasturte hasierako bileran hizkuntzaren garrantziaz jabetu arazi.</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Gurasoak
	Arduradunak
	Euskara Saila
	Hezkuntza Saila Ikastetxeak Guraso Elkartea

Ekintza	Estrategia
<p>1.1.2.1. Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gurasoei zuzendutako kanpaina: mezu argiak eta errealitatea erakutsi (publizitate kanpaina “Zuen artean ere euskaraz!” modukoak)</li> <li>Etxez- etxeko banaketa eta webgunean zintzilikatu katalogoa</li> </ul>	Komunikazioa
	Eraginpekoak
	0-16 urte bitarteko haur eta gazteak eta euren gurasoak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>1.1.2.2. Haurrentzako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera eman. [Hauren zaintzaileen zerrenda; euskarazko filmen zerrenda ezagutzera eman; eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>www.beharsarea.com webgunearen bitartez zerrendak gizarteratu</li> </ul>	Komunikazioa
	Eraginpekoak
	Gurasoak
	Arduradunak
	Euskara Saila



Ekintza	Estrategia
<p>1.1.3.1. Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu ondo, gaixotasunei nola egin aurre... [Kantu, ipuin eta jolasen ikastaroak; sentsibilizazio-tailerrak antolatu; eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• “Eman giltza” transmisio kanpaina: haur jaioberrien gurasoei oparia eta sentsibilizazio gutuna.</li> <li>• Guraso-gaienezko euskarazko liburu eta DVDa “Zorionak ama izango zara”. Bertan jasotzen dira guraso izatera doazenentzako jakin-minezko gaiak: erditzea, edoskitzea, masajea, haurraren zainketa,...</li> <li>• Ipuin eta jolasen ikastaroa antolatu</li> </ul>	Ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	Guraso berriak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>1.1.3.4. Irteerak antolatu Euskal Herrian zehar: euskal kulturari lotuta dauden parke, museo, gune, ekitaldietara: ikastolen egunak, eskola publikoaren festa, Euskararen Eguna, Durangoko azoka...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko elkarteekin irteerak antolatu: Mintzaeguna...</li> </ul>	Ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	Euskara Saila Elkarteak
	Arduradunak
	Udala Herriko elkarteak

## 2. Euskalduntzea-prestakuntza

### Ahulgunea

- Euskararen kalitatea ez da ona.
- Euskara eskoletan parte hartzeko maila desberdin askotako jendea biltzen da eta horrek taldeak osatzea zailtzen du. Ondorioz, aukera bakarra, inguruko herrietako euskaltegietara joatea izaten da.
- Ezagutzatik erabilerarako saltoa ez da ematen.
- Jatorrizko hizkuntza gaztelania dutenek ez dute euskara ikasteko beharrik sumatzen.

### Helburu zehatzak

- **Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.**
- **Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu**

Ekintza	Estrategia
<p>2.1.1.1.Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegiak...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• “Errenta Aitorpena Euskaraz” kanpaina.</li> <li>• “Berba eta kafea” gisako ekitaldiak</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Herritarrak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>2.1.1.3. Gazteengan eragin adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta: bide telematikoak, sakelekoa... [Solosalldiak pertsonaia ezagunekin, motibazio saioak eta gisakoak]</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteentzat erreferente diren pertsonekin ekimenen bat antolatu: abeslariak, antzezleak, kirolariak,...</li> </ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Gazteak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>2.1.2.1. Euskaltegiko euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaldu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Webgunea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren bitartez, matrikulazio garaian.</li> <li>• Udaleko webgunean bannerra jarri</li> </ul>	Komunikazioa
	Eraginpekoak
	Herritar erdaldun eta partzialki euskaldunduak
	Arduradunak
	Euskara Saila Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Ekintza	Estrategia
<p>2.1.2.2. Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilita, triptikoak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, udalak zer laguntzen duen, metodologia, ziurtagirien baliokidetzeak, egonaldiak familia euskaldunetan programa...).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaleko webgunearen bitartez</li> <li>• Diptikoaren etxex-etxekako banaketa</li> </ul>	Komunikazioa
	Eraginpekoak
	Herritar erdaldun eta partzialki euskaldunduak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>2.1.3.1. Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irizpideak definitu eta baldintzak betetzen dituen pertsona diruz lagundu, beka-sistema bidez.</li> </ul>	Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini
	Eraginpekoak
	Euskaltegi pribatu, homologatu eta barnetegietako ikasleak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
<p>2.1.4.1."Mintzalagun" proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Berbalagun egitasmoa indartu, eta euskaldun eta euskaltzaleen sarea sendotu.</li> <li>• Berbalagun egitasmoa erreferente bihurtu: bertan parte hartzen dutenak ezagutarazi, ahalegina aitortu,...</li> </ul>	Ikastaro bereziak antolatu
	Eraginpekoak
	Euskara ikasleak/euskaldunak
	Arduradunak
	Euskara Saila

Ekintza	Estrategia
